

## KARMELO ETXENAGUSIA (1932-2008)

Elizgizona eta euskaltzale handia, gotzaina eta irakaslea, idazlea eta sermoilaria, ertz eta ezpal asko dituen gizona, biografia txosten labur baten nekez jaso daitekeen bizitza oparo baten jabe. Baina beronen bizitzako alderdi marduletariko bat berak erraztu digu hartan ere, *Euskerea nire bizitzan* (2003) azken liburuaz. Obra honek, arterago onduak eta hor-hemen argitaratuak zituen idatzi laburrez gain, liburuari izenburua damaion sarrera-atal luze bat dakar (27-110. orr.), zeinetan txikitatik gehiago euskararekin izan duen harreman luzea lehen pertsonan, barne gogoz, garatzen digun.

Karmelo Etxenagusia Iurretako herriko elizatean jaio zen, 1932ko apirilaren 24an. Urte batzuk lehenagotik (1926) Iurreta Durangoko udalbarrutiaren barruan zegoen, eta halaxe irauin dute hiri-elizateok udal bat direla orain urte batzuk arte (1990), herritarrik gehienek eskariz atzera bere udala izatea eskuratu zuten arte. Batze-banatze gertaeron gainera, *Idxorretako semetzat* eduki du beti bere burua Don Karmelok –gainerako herritar gehienak legez–. *Ertzilbengoa* baserri-etxean bizi zen familia. Hiru bizitzako etxea ei zen Bilbotik Donostiarako errepide kontran dagoen etxe hori. Guraso biak ere iurretarrak izan zituen. Euskaldun huts-hutsak. Erdara ulertu eta jakin ere bai, baina euren artean zein umeeekin beti euskara. Aita, Durangoko lantegi bateko langilea, gazte samar hil zitzairen, 54 urteko zela.

1937an, gerrate denboran –Karmelo 5 urteko mutikotxoa oraindino–, ebakuazioa gertatu zenean, Etxebarri Urubekora joan zen familia osoa, amaren neba baten etxera, «ganadu ta guzti» diosku berak. Huraxe izan zuen gaztelaniarekiko lehen harreman hurbila. Polito ikasi ei zuen gaztelania hango egotaldian, baina atzera Iurretara itzuli zirenean berriro zabartu. Gerotxoago, sei urte t'erdiko zela, hasi zen eskolara, Iurretako Herriko Eskolara, lehen ikasketak egitera. Artean etxean ikasita ei zekizkien zenbaketa, irakurtzen eta gehiago ere. Eskola erdara hutsean jaso zuen; maisu guztiak ere erdaldunak eta erdaltzaleak. Maisu euskaldun bakarra, Nikolas Zuazo herriko semea izan zuen. Elizan ikasten zuen dotrina izan zen aldi hartan euskaraz hartzen zuen gai nagusia, arrosario eta beste elizkizun batzuetan entzuten zuenaz ostean.

Hamaika urtegaz joan zen Seminariora «abade egiteko», orduan esaten zen moduan. «Ordurako Kristau Ikasbideko hiru mailak buruz ikasita neukazan» diosku<sup>1</sup>. *Kristau Ikasbidearen* hiru mailak izan ziren, bada, Karmelok euskaraz irakurritako lehen liburua. Aldi horretan don Domingo Zuluaga ibarrangelutarra zegoen Iurretan abade, 29 urteko apaiz gaztea bera ere, eta haren bitartez sortu ei zitzaion abadetzarako

---

<sup>1</sup>Karmelo Etxenagusia (2003), *Euskerea nire bizitzan*. Sutondoan sorta. Labayru Ikastegia & BBK Fundazioa, Bilbao, 36. or.

gogoa. Don Domingo abade edadetua oraintsu argitara berri duen liburu baten<sup>2</sup> eskainzen digu gertaera horren lekukotasun zuzen eta bizia:

On Karmelo hamaika urteko mutiltxoia zala ezagutu neban. Iurretako parrokiaren abade nengoan eta goiz argitsu baten eleiza aurreko enparantzan eskola-umeak olgetan ebilzan, ni han ondoan egoan iturri baten aldean begira. Honetan, bat-batean eta gehiagoko barik, mutiltxo bat hurreratu jatan esanez: «Nik abade ixen gurot». Zerbait harrituta, honela erantzun neutsan: «Abade? Abade izan nahi dozu?» Eta berak: «Bai». «Ba, abade izango zara, lagunduko deusgu izaten, zure etxeokaz egongo naz, zure amagaz berba egingo dot, egon trankil. Bihar be etorri, eta zerbait egiten hasiko gara». Salto bat eginagaz football-ean eabilen.

Karmelo hil den arteino iraun du apaiz bion arteko adiskidetasun sakonak. Gerran euskal artzainen omenez 2007an egin zen omenaldian gertatu zien biok eta oroipen monolitoaren ondoan argazkia elkarrekin atera (*Ibarrangelu*, 76). Karmeloren Mezaberrian eta abadetzako urrezko ezteietan ere aldamenean izan zuen. Eta Karmelo bera zen Zuluaga abadearen, Ibarrangeluren, gaineko liburuaren sarrera egiteko, artean ustebako heriotzeak eroan ez balu.

Harira bihurturik, K. Etxenagusiak bere lehen abade ikasketak –orduan Seminario Txikia zeritzanaren lehen urtea–, Gordexolan egin zuen (1943-1944), hango «Preceptoría»n. Enkantarriko herri dotore horretan orduan erdara baino ez zen entzuten, eta «Preceptoría» barruko giroa ere guztiz erdalduna ei zen, nahiz apaizgaietarik hirutik bat euskaldun hutsak izan. Apaizak guztiak erdaldunak. Hurrengo ikasturte biak (1945-1946) Arratiako Artean igaro zituen ikasle. Bizkaitik abade zihozenak Gaztelu-Elexabeitira bidaltzen zituzten, eta Karmelo ere hara joan zen. Baina ikasturtea, urrian hasi beharrekoa, hurrengo urtarilaren azkenera arte ezin izan zuten hasi, hariak eta gerran kalte handiekin gertatu zen Seminario Txikiko eraikina konpondu zen arte. Bizkaiko ibarririk euskaldunenetariko baten bihotzean egonagatik, euskararen usainik ez ei zuen asmatu Seminario barruan: guztia erdaraz, nahiz hizkuntza-ikasteari ahalegin handia opatzen zitzaion ikas egitarauan: latina eta batez ere gaztelania ikasi zituen, baina baita grekoa eta frantsesa ere. Irakaslerik erdiak euskaldunak ei ziren, M. Estomba, J.M. Iruretagoiena eta S. Duo beste batzuen artean; lehen biak gudu aurreko Gas-teizko Seminarioan M. Lekuonak zuzentzen zuen Kardaberaz bazkuneko kide izanak.

Urte bi han igaro ondoren, Gasteizera joan zen 1946an, hango Seminario Nagusira: «Hamalau urteko mutil bardingoa nintzan» diosku. Filosofia hastearrekin, hizkuntzei dagokienez, gaztelania eta latineko literaturetan murgildu ei zen buru-belarri, grekoa eta frantsesa hobeto lantzen saiatu, eta hizkuntza berri bi ikasten hasi: italianoa eta ingelesa. Erbeste-hizkuntzok gerora, nagusitan, bere kontura ugaritu eta landu ei zituen polito eta ez mesede makala egin gerora. Beraren hitzetan: «Inglesak, frantsesak eta italianoak ez deuste giti lagundu munduan zehar ibilteko:» (*ENB*, 46). Santos Teodoro Rekalde durangarra izan zen ingelesera zaletu zuena, orduko aldiaren oraindik horren ohiko ez zen hizkuntza. Abadegai hau –gerora abade eta idazle bihurtuko zena–, baina ikasketetan urtebete aurreragokoa bakarrik. Apaiztu ondoren Ameriketako euskal artzainekin urte luzeak igaro zituen eta hango oroitzapenekin *Deunor* elaberria ondu<sup>3</sup>, zeinen kapitulu bat Karmelok *Euskal Idazleak Bizkaieraz* antologian jasorik dakarren (266-268), gomuta eta gorazare modura ziurrenik. Abadegai berau izan zen euskal literaturara zaletu zuena ere.

<sup>2</sup>Domingo Zuluaga (2009): *Ibarrangelu kantu eta kontu*. Labayru Ikastegia & BBK Fundazioa, Bilbao, 29. or.

<sup>3</sup>*Deunor*, Kulixka Sorta 76, Zarautz, 1973.

Honek eskuratu zizkion Paulo Zamarriparen euskarra errazeko liburu batzuk: *Kili-Kili*, *Firi-Firi*, *Zaparradak-eta* hizlaurkoak eta *Gora begira* poema liburua. Eurokin abiatu zen Karmelo euskal literaturaren alorrean. Zamarriparen «Iketzako abade zarra» pasadizua sartu zuen bere *Euskal-Idazleen Lorategia (Bizkaieraz – hitzlauz)* delakoan (1965, 32) eta geroago *Euskal Idazleak Bizkaieraz* delakoan «Bakea dala bake» idatzia (1980, 160-161), baina egia esatera literatura aldeetik ez zuen meritu handiegikotzat: gatz gutxiko umorea zuela zeritzan eta haren idatziak gutxi erabiltzen zituen bere eskoletan. Hori bai, herri euskara oso ondo menderatzen zuela aitortzen zuen. Karmelo gramatizale baino literaturazaleago zenez, haren *Gramática Vasca* edo *Manual del vascófilo* ez zituen erabiltzen irakaste-jardunean.



Karmelo, behin euskararen harrak jo zuelarik, euskal literaturarik ederrenean murgiltzen hasi zen: Lizardiren *Biotz-begietan* irakurri zuen, neke handiz eta erdal itzulpenaz lagundurik. Handik urte luzeetara Derion Filosofia kurtsoetan bere ikasle ginenok sakonkiro aztertuko genuen obra (1970-1971), gudu osteko beste poeta ospetsu batzuekin batera. Lizardiren poemak irakurtzean «euskerara be goi mailako edertasuna adierazoteko gauza badala ikusi neban», aitortuko digu (*ENB* 49).

Gasteizko Seminarioan bete zituen apaizgo ikasketa guztiak: Filosofiako hiru ikasturteak lehenik eta 1951etik aurrera Teologiako laurak. Filosofian «greko biblikoa» eta hebreoa ere ikasi zituen. Euskara lagunarte harremanetara mugatzen zen, koruaren euskal kantaren batzuk eta Mezatako eliz kantaren bat kenduta. Bere kontura irakurtzen zuen, ordea, euskal literatura: Domingo Agirrerren *Garoa* eta Orixeren *Euskaldunak* poema luzea, besteak beste. *Garoa* horretatik hainbat txatal hautatuko zituen gerora bere lorategietarako: «Inaxio Marirrentzat andregaiak aukeratzea», «Ana Joseparen diru-zaletasuna» eta «Malentxoren azken agurra bere baserriari» batez ere. Orixeren *Euskaldunak*, hizkeraz urrunagoa eta neurtitzez jasoagoa eta trinkoagoa izanik, neke gehiagoz menderatu zuen. Gerora, hirurogeitaka urteetan, Derioko Seminario Nagusian euskara irakasten zuelarik, apaizgai euskaldunekin landuko zuen berriz obra hau, eta ez irakurri eta aztertu bakarrik, baita ere kantatu eta buruz ikasi ere hango poemak eskoletan, doinuz hornituak izaki. Orixeren lanetan, hitz lauz maiteago zuen *Santa Kruz: apaiza* elaberria. Horretarako «Aramaiotik ere igesi» atala berarekin landuko genuen geroago Derioko Seminario Txikian (1968-1969), *Euskal Idazleen Lorategia [itz. lauz] II. Gipuzkeraz* aztertzen genuelarik. Filosofia ikasle zela hil zitzaion aita 1950ean «ia bapatean» eta handik gutxira «nire anaia bakarra soldadu eroan eben Donostiara», ama alarguna bakardade handian utzirik. Gertaera latz horrek etxera ekarri zuen tristezia arintzeko asmoz edo, astero amari euskaraz gutuna bidaltzen hasi zitzaion. Horretxetara «normaldu» zuen idatziz amarekin eta etxeokekin berbaz euskara hutsean beti izan zuen hartu-eman. Euskara bera lantzeko bidea zen hori, eta ahozko erregistroari idatzizko bidea urratzea ere bai aldi berean. Gerora Bizkaiko gotzain izango zen Koldobika Mirena Larrea abadearekiko harremana ere orduantxe hasi zuen. Larrea gotzain egin zelarik, Karmelo izan zuen luzaroan haren euskarazko idatzien zuzentzaile eta txukuntzaile.

Hemeretzi urteko zela hasi zituen Teologia ikasketak, lau urte iraungo zutenak (1951-1955). Eta orduantxe hasi zituen beste apaizgai batzuekin batera euskara eskolak:

«euskal abadegei batzuk, geu hasi ginan alkarregaz asteen behin batu, eta alkarri euskera apur bat irakasten» diosku (*ENB* 54). Martin Olazar, Julian Olazabalaga eta Txomin Artetxe izan ei ziren euskara-taldetxo horren eragileak. Eta minpeko barik aitortzen digu eurok izan zirela gerraostean Gasteizko Seminarioan euskara lantzen hasi ziren lehenak, 1951. inguruko urte horretan edo, Juan Mari Lekuona eta beste apaizgai gipuzkoar batzuk ere aldi beretsuan hasi ei ziren taldean euskara lantzen. Seminarioko Erretore zen Felipe Ugalde urretxuarraren isil-baimen batekin hasi ziren euskarazko talde-jardun horiekin. Urte horietan hasi zen Seminarioko ikasle zen Juan Mari Lekuona ere bere lehen lantxoak *Egan*-era bidaltzen, Pablo Bilbao Aristegik zirikatirik. Julian Olazabalaga aipatzen du euskara kontuetan bere lehen maisutzat, taldetxo horren buru bera izan baitzen. Gerora, euskararen suspertzaile eta beste ekimen askoren sortzaile eta eragile legez agertu du burua gehiago abade izan den herri eta inguruetan, ibiltari handia izateaz gain.

Baina Filosofian bezala Teologian ere bere kontura euskarazko literatura irakurtzeari gogotik ekin zion. Bizitza guztian otoitz eta euskara kontuetan gidabide izango zuen liburu bat orduan ezagutu zuen: Orixek latinetik euskaraturiko *Eguneroko meza-bezperak*, argitaratu zenetik, 50 eta 60ko hamarkadetan batez ere, beste apaiz euskaltzale askoren esku-liburu ere bihurtuko zen esku-liburua. Karmelok ikara barik aitortzen digu: «nire bizi guztian euskal arloan mesederik gehien egin deustan liburua hauxe izan dot» (*ENB* 60). Euskara eskoletan maiz aipatzen zuen Orixe –eta honek atonduriko euskal literaturaren atze laburra erabili ere bai- eta arreta bereziz *meza-bezperen* liburua. Teologiako meza denbora guztietan liburu horretako txatalak irakurtzen zituen: «Lau urtetan goizero, egunean orduerdi, euskeraz irakurtea, badakizu zer dan? Urtearen azkenerako zenbat ordu diran?» (*ENB* 61). Ondorioz gogo-bizitza guztia euskaraz ausnartzen hasi zen: «Lehen latinez buruz nekizan otoitzak, salmoak, antifonak, eleiz kantak... orain euskeraz hausnartzea harrigarri eta zoragarri egin jatan» (*ENB* 61). Santi Onaindiaren *Milla euskal olerki eder* poesia bilduma hanpatua ere Teologiaren azkenerantz zuzendu eta irakurri zuen.

1955.ean abadetutako zen, San Pedro egunez, Begoñako basilikan, eta Meza berria urte berean esan Mikel deunaren egunez bere jaioterrian. Latinez Meza, orduan ohi zenez, eta sermoia euskaraz, bera Seminarioa eroan zuen Don Domingo Zuluaga, gorago aipatua dugunak eskainia. Abadetzako lehen hogeitau egunak Lanestosan igaro ondoren, Derioko Seminario Txikira bidali zuten, abadegai gaztetxoaren hezitzaile eta irakasle izatera. Han, beste ekimen batzuen artean, apaizgai ikasleen artean dantzariak ere bazirela eta, dantzari taldetxoa eratzea erabaki zuten. Iurretako semeak ere euskal dantzen sena barruan izan! Lorentzo Zugazaga zen apaizgai dantzari horietako bat, gerora euskara eta literatura gaietan gailenduko zena, Seminario Nagusian Karmeloren eskutik eskolak hartuz eta 1970az geroz, Derioko Udako Euskal Ikastaroa sortu zelarik, luzaroko urteetan hango irakasle eta material-sortzaile izango zena. Eta Elizbarrutiko euskarazko idatzen ontzaile eta zuzentzaile, Karmelo bera bezala. 1956-57 ikasturtean etorri ziren Gasteizko Seminarioko abadegaiak Derioko Seminarioa, euskal dantzek indar handia hartzen zutela.

Derioko Seminarioa gertatu zen, bada, Karmeloren irakaste-jardunaren lehen esperientzia. Seminario Txikiko hezitzaile-irakasle zen aldetik, askotariko gaiak ematen zituen: «latina eta gaztelania lehenengo urtekoei, gaztelaniazko literatura hirugarren eta laugarren kurtsokoei, solfeo apur bat be bai hasibarriei» bere hitzez esanda. Orduerik nabari da letretarata joera: hizkuntzetara eta batez ere literaturara, musika ahaztu gabe.

Ikasturte horrextan edo hurrengoan hasi zen Karmelo euskara eskolak Seminario Nagusiko apaizgai euskaldunei ematen. Teologiako ikasleak ziren, handik lasterrera herritarra apaiz joango zirenak. Lehenagotik ere hasita zeuden euskara eskolak Seminarioan, era apalez bazen ere. Astean eskola bat. Gramatika ikasteari barik idazte-jardunari eskaini zion lehenengotatik lehenasuna. Hona bere metodologia: «Euskeraz irakurri, euskeraz idatzi, idatzitakoa aztertu ta zuzendu: horra hor gure orduko ikasbide urria...».

Ordukoexa da Karmeloren lehen euskal liburua, itzulpenezkoa eta euskara-ikasleon laguntzaz burutua: *Lagunarteko Meza Orienteko Kristiñauen eraz* (Bilbao, 1959). Ekialdeko liturgiak onartzen zuen orduan herri-hizkuntzetan Meza ematea eta bazen Derion abade bat, don Francisco Vallester Viu, horretarako baimena zuena, eta euskararik jakin ez arren, beronen eskariz eta borondatez egin zen liturgia-euskaratze hori. Erromako Elizak Vatikanon II. Kontzilia arte ez zuen horretarako biderik irekiko.

Derion hiru urte egin ondoren, Comillas-era bidali zuen apezpikuak, «Jus Canonium» ikastera. Ez ei zuen eliza lege eta kanonen mundua guztiz bere gogoko, baina aginduari men egin eta Comillasen dugu goi ikasketen ikasle (1958). Seminario eta Unibertsitate zen ikastegi ospetsu horretan giro guztiz erdalduna idoro zuen, bertako ikasleak estatu guztitik etorriak baitziren.

Gudu aurrean han egonak ziren, hala ere, euskaltzale ezagun batzuk: Orixe eta Nemesio Etxaniz idazleak eta Antonio Zaldia gorliztarra, hau ere euskaltzale handia eta gerratean atzerria ezagutu zuena. Baina esan dugunez, gerraosteko giro ilun hartan nekez arnas zitekeen euskaltzale sundarik han: Juan Bizente Gallastegi durangoarra, gerora abade eta euskaltzale ageria izango zena zen horietariko bat. Berbaz ia ezin eta, irakurtze bidez jagoten saiatu zen jatorrizko bere euskara: gipuzkerazko liburuska bat, *Kristoren Antz-bidea* erabiltzen zuen maizenik otoitz egiteko. Barne gogoeta eta ezagun-adiskideei bidalitzen zizkien gutunak ziren euskara lantzeko beste bere bideak. Han ikasturte bi egin (1958-1960) eta Zuzenbide Kanonikoan agiriaren jabe egin ondoren, Derioko Seminario-ra dator atzera hurrengo ikasturterako, baina oraingoan Seminario Nagusira teologoen arduradun eta irakasle. Irakasgaiak oraingoan: «Jus Publicum Ecclesiasticum» eta euskara –izen horren barruan doa euskal literatura ere- izango ditu. 1960-61 ikasturtean, euskarazko eskolak atondu behar eta, euskal idazleak gehiago eta hobeto ikasten hasi zen, garaikide zituen euskal idazle batzuk ezagutzen ere bai, eta orduantxe hasi zen, hain zuzen, gerora izena eman dioten euskal idazleen lorategiak, antologiak prestatzen. Gramatika ere irakatsi behar zuen, hala ere. Eta horretan lagungarri berebizikoak izan zituen Joseba Intxaustiren *Euskal Aditza* (1960)<sup>4</sup> eta Sebero Altuberen *Erderismos*, hau gudu aurreko lana (1929). Eta hauekin batera, bai eskoletarako eta bai lasterrera onduko zituen lorategietarako argibide eta aitzindari izan zuen orduantxe aurretxoan Iñazio Omaetxebarriak eta Luis Villasantek atera zuten *Euskera* (1959) ikasbidea, non lehenak gramatika atala eta bigarrenak euskal testuen antologia lantzen baitzuten<sup>5</sup>.

Karmeloren kezka, hasiera bertatik, euskara irakasbidea bere ikasleen premietara egokitzea zen, eta horretan datza arrazoia, batetik Altuberen *Erderismos* liburuaren laburpen egokitu bat atontzea eta ikasleen beharren arabera irakurgai egokien bila

<sup>4</sup>Joseba Intxausti (1960). *Euskal-aditza. Gipuzko-bizkaierak. Paradigmas verbales y método racional para su estudio*. Zarauz, Icharopena.

<sup>5</sup>Omaetxebarria, Ignacio (1959): *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*. Zarauz, Ed. Icharopena.

hastea. Beraren berbaz esanda: «Handik urte batzuetara, gure Udako Ikataroak [Deriokoak] bere ikurtzat hartuko eban bide zuhur horretatik eroatea ikasleak: «Dakigunetik ez dakigunera...» (ENB 71). Bera bezala Durangerriko seme izan zen Kirikiñoren idatzietatik abiatu zen horretara. «Kirikiñoren irakurgai errez atsegin mordo bat eskainitakoan, beste idazle batzuen zatiak be sartzen hasi nintzan eta holan, igarri be egin barik, Bizkaiko idazle asko agertzen dira hor. Azkenean, polikopiaz banan-banan argitara emoniko orriak batu... eta horra hor nire lehenengo antologia» (ENB 71).

Eskolak ematen jardun eta bostgarren urtera ateratu zuten ziklostil sistemaz, eskola-apunte itxuraz, baina txukuntasun eta liburu inprimatu baten metodologia osoaz –prologoa, idazle bakoitzaren aurkezpen laburra, idatzi hautatuak ondoan datozela, bilabideak idazleka eta aurkibide orokorra– bere lehen antologia: *Euskal Idazleen Lorategia. Itz-lauz. Bizkaieraz*. 1965. Ateraldi mugatua izango zuen, baina orduko Seminarioan, bai Nagusian, bai Txikian, ondoko hainbat urtetan izan zen euskara-ikasle talde askoren ikasbide liburua, eta hartan oinarrituko zen ere batipat Euskal Literatura gaiaren irakaskuntza urte batzuetara eratuko zen Derioko Udako Euskal Ikastaro barruan (1970az geroz).

Euskal literatura irakasteko Orixeren aspalditxoko sintesi-lantxo bat ere erabili zuten eskoletan, berberak polikopiazko ateraldi berezi bat eginik: *Euskal literaturaren atze edo kondaira laburra* izenekoa. Eta lehen lorategiaren ondoren, handik urte bira, bigarren antologia bat ateratu zuten, oraingoa gipuzkerazko idazleei eskainia: *Euskal Idazleen Lorategia: itz-lauz. II. Gipuzkeraz*. 1967. Hau ere aurrekoaren sistema berezuz, baina metodologiak zehatzago eta osoago, inprimatuz txukunago eta batez ere edukiz ugariago. Honen hartzaileak ere Seminarioko bere ikasleak zituen: lehen ikasturtean bizkaierazko testuak landu zituzten apaizgaiek hurrengo urtean gipuzkerazko literatura hautatua lantzea zuten bidea. Lorategi biok izan ziren Derioko Seminarioan, bai Nagusian, eta bai Txikian Karmeloren ikasle ginenontzat, euskara ikasteko bitarteko oinarritzaileak, bata bestearen hurrengo. Literatura bidez landu eta gozatu genuen euskara, gramatika agorragoaren bidez barik. Eta literaturazko bide horrek, irakasleak gaiari ematen zion gozotasunaz eta sentiberatasunaz, gozagarri eta liluragarri bihurtzen zituen gure euskara eskolak. Handik urte luzeetara ere iritzi eta hots bera entzun zaie Derioko Udako Ikastaroan haren eskolak jaso dituztenei.

Aurreko lorategi biotan oinarriturik 1969an, oraingoa inprimategian, hirugarren antologia bat argitaratu zuten: *Euskal Idazleen Lorategia (itz-lauz)*.<sup>6</sup> Labur beharrez, bizirik zeuden idazleen lanak bazter utzi behar izan zituen.

Seminario Nagusian ikasle izan zituen apaizgaien artean gerora ezagun egin ziren ikasleak izan zituen, X. Amuritz, G. Garitaonandia, J. J. Pujana, A. Muniategi, L. Zugazaga... Batzuk kantari onak ere bazirela eta, ikasleei kantarazi zizkien S. Mitxelaren *Arantzazuko 20 kanta*, Orixeren *Euskaldunak* poemaren gehigarriko kantak eta beste herri kanta asko, batez ere literatura balio apartekoa zutenak. Kanta grabatuok literatura eskoletan erabiltzen zituen aringarri gisa, eskolak atseginago eta edukia erakargarriago bihurtu zedin. Bai jadesi ere.

Goi literaturako obrarik bikainenekin hirugarren ikas egitarau bat ere garatu zuten Derion Seminario Nagusiko Filosofiako ikasleei zuzendua: euskal literatura jasoeneko lanak, batez ere poesia, sakon eta era monografikoaz aztertzea. Eskolak baino mintegi

<sup>6</sup> Inaki Beobide jaunak argitaratu zuen Donostian 1969an.

ziren gehiago, eta ikasleok ere lanak egin behar genituen. Gudu aurreko eta gudu osteko sorkuntzarik ederrenak hautatu zizkigun eta aztergai zuen idazle bakoitzeko apunte idatzi luzeak paratu eta banatzen zizkigun: Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Salvatore Mitxelena, eta uholde berriko batzuk: Gabriel Aresti, Bitoriano Gandiaga, Joxe Azurmendi eta Xabier Lete besteak beste. Gu izan ginen, oker ez banago, ikastaro horren azken hartzaileak Derioko Seminario Nagusian, 1971-1972 ikasturtean. Hurrengo ikasturtean, 1972-73koan, Lorentzo Zugazagaren gidaritzapean, Mogelen *Peru Abarka* aztertu genuen gai, estilo eta hizkera aldetik. Asteango saioak izaten ziren. Handik aurrera, bai Karmelo, bai Mikel Zarate, eta aipatu berri dugun Lorentzo batez ere, Seminario Txikiko euskara eskolekin jardungo zuten urte batzuetan.

Artean, Ander Manterolaren ardurapean, Derioko Udako Euskal Ikastaroa sortu zen 1970eko udan, urtez urte mailarik maila garatzen eta goratzen joango zena, goiz eta arratsaldeko ikastaro trinkoaren egitura hartzen zuela. Karmelo eta Mikel izan ziren hasiera horretako irakasleak, euren ikasleak gehienbat abade, fraide eta monjak zirela. Ondoko urteetan mailaz maila garatzen eta goratzen joango zen, eta irakasle berriak hartzen: L. Zugazaga eta J. M. Irazola lehenengoetarikoak eta gerora gure belaunaldiko eta ondokoetakoak, batez ere Ikastaroan bertan ikasle izan zirenak.

Karmeloren lana, hor ere, idazkuntza eta literaturara zuzendu zen gero eta argiago, eta literaturaren barruan, lehenengo bizkaierazkora, ondoren gipuzkera eta gaurrengoko literatura, eta azkenik Iparraldekoa, Ikastaroa mailetan hazi ahala.

Hasieran Ikastaro bakoitzean eman beharreko edukiak aldeaz aurretik prestatu eta karpitetan polikopia sistemaz banatzen ziren. Karmelo ere hala hasi zen literaturakoe-kin. Haien lehen fruitu izango dira hurrengo antologia biak. 1980an argitaratuko da *Euskal Idazleak bizkaieraz* izenekoa, Jon Kortazar eta Aitor Etxebarria ere egilekide direla: Karmelorenak dira testu-hautaketa, idazleen aurkezpenak eta testuen ohar-rrak, eta orduko laguntzaile bienak testuen gaineko ariketak eta azterbideak. Aurreko lorategietatik bereziak ziren testuak hautatu zituen beren-beregi, eta herri literaturari ere aparteko tokia eskaini. Antologia hau berak ia ez zuen erabiliko 80ko hamarkadako eskoletan, zeren ordurako Udako Ikastaroko goi mailetan Iparraldeko literatura irakasten baitzuen. Ikastaroko behegoko mailetako irakasle gazteagoak izango ziren liburu horrezaz baliatuko zirenak, eta ordurako Derion bertan zegoen «Begoñako Andra Mari» Irakasle Eskolan ere erabiltzen zen ikasle euskaldunekin.

Hurrengo urtean, 1981ean, *Iparraldeko Euskal Idazleak* izeneko antologia plaza-ratu zuen, aurrerago, 1988an, erantsi eta zuzenketa berriekin bigarren argitaraldi bat ezagutuko zuena. Derioko Ikastaroan luzaz erabili zen liburu hori 5. mailako eskoletan, eta Iparraldean bertan ere erabilia izan zen hango zenbait ikastarotan.

Derioko Udako Ikastaroan hogeitaz urtez izan zen jarraian irakasle, eta 1989. urteko ikastaro ondoko ekitaldi akademikoan eskaini zitzaion omenaldiaz burutu zuen hango irakaste ziklo luze eta oparoa.

## **EUSKAL IDAZLEEN MUNDUA ETA EUSKALTZAINDIA**

Comillasetik itzuli ondoren berez-berez joan zen orduko idazle eta euskaltzaleen mundutxoan murgiltzen. Lehen urteotan ezagutuko dituenik gehienak hurrekoak dira, Bizkai aldekoak: Lino Akesolo, Santi Onaindia, Jaime Kerexeta, Eusebio Erkiaga,

Xabier Peña, Augustin Zubikarai, Nikolas Alzola *Bitaño*, Justo M<sup>a</sup> Mokoroa, Luis Villasante, Juan San Martín eta beste gehiago. Batez ere bere lehen lorategiak (1965 eta 1967) atontzeko erabakia hartu zuenean hasi zen aholku eta laguntza eske, eta goian aipatuetariko batzuk laguntza handia eskaini zioten, idazleak eta idatziak proposatuz.

1965eko irailaren 24an Euskaltzaindiak urgazle izendatuko du, euskara gaietan oraindik hain ezagun ez zen denboretan; hori zen behintzat beraren iritzia. Hala ere nondik edo handik ezagunak izango ziren euskaltzain batzuentzat Derioko Seminarioan apaizgaietara ematen zizkien eskolak eta haien prestatzen zituen polikopia-sorta txukunak, ikasleentzat ulergaitz ziren hitz eta esamoldeen argibide eta guztikoak. Euskaltzaindiaren batzar berezieta eta joaten izan da batez ere, baina, berak aitortua zuenez, Akademiaren barneko jardun eta bileretan jarduteko asti-urri ei zebilen. Elizako arazoetan murgildurik egoteak ez zion bestelakoetarako betarik ematen. Ageriko batzarretan-eta, hala ere, maiz izaten zen partaide, eta aspaldi hartako 1968ko Arantzazuko batzar seinalagarrian ere izan zen, Mikel Zarategaz batera. 1998ko apirilaren 24an Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen.

Beste euskara erakundeekin izan dituen harremanen artean, aipamen berezia me-rezi du Bilboko «Euskerazaleak»-ekin izan zuenak. Aspaldi baten harreman estua izan zuen, batez ere Jesus Oleaga buru eta Jose Antonio Montiano buruorde izan ziren garaian. Xabier Peñaren metodoa lagun zuela hainbat urtetan eman zituen euskara eskolak elkarte horretan, nahiz lan hori ez izan berarentzat horren gustukoa, euskara maila urriko ikasleak baitziren ia denak.

Eskola-jardun horrekin loturik dago Jose Antonio Montianok 1972an atera zuen *Diccionario de bolsillo Ikas: euskera-castellano, castellano-euskera*, guztira hamar bat mila hitz-sarreraz hornitua, eta bizkaiera-gipuzkera euskalkietako eredueta mugatua. Karmelo Etxenagusia, Xabier Peñagaz batera, aholkulari legez ageri den arren, bada-kigu, berak aitorturik, horko euskarazko hitz guztien hautaketa Karmeloren lumaz eta bermeaz egina dena.

## **EUSKAL LITURGIA ETA ELIZ ARDURAK**

Comillasen ikasitako Zuzenbide Kanonikoak eman zion eliz legeen ezagutza bide zela, gazterik hartu behar izan zituen ardurak Bilboko Elizbarrutian. 1968tik aurrera, ohiko irakasle-lanez gainera, Gotzaindegiko kantziler izendatuko dute eta luzaroan iraungo du gotzainaren hur-hurreko kargu horretan. Beronen zereginen artean, gotzainaren agiri eta txosten ofizialak egiten laguntzea egongo da, eta berau izango da luzaroan agiri ofizialon euskarazko bertsioren idazle.

Gurpidez gero Bilboko Gotzaindegian beti izan ditu karguak. Jose Maria Cirarda «administrador apostólico» izendatu zutelarik 1968an, haren gobernu-taldeko izan zan. Antonio Añoveros 1971an gotzain izendatu zutelarik, harekin ere kargu berean iraun zuen. 1979an Luis Maria Larrea gotzain izendatua izan zelarik, bikario nagusi izendatu zuen 1980an. Kargu horretan bederatzi bat urte egin ondoren, aldia bete zuenean urte sabatikoa eskatu eta Erromara joan zen urtebeterako Teologia arloko ikasketetan berritzeko asmoz. 1990ean, Erromatik etorrira, Begoñako Basilikan parroko izendatu zuten. 1995ean L. M. Larreak Bilboko gotzaintza utzi eta Ricardo Blazquez izendatu zutenean gotzain berri, honekin batera izendatua izan zen Karmelo Etxenagusia ere



gotzain laguntzaile. Goi kargu horretan iraun du hil aurretik harte. 2007an, 75 urte betetzeaz, gotzaintza uzteko eskaria egin zuen eta 2008ko apirilaren 4an utzi zuen kargua Begoñako basilikan egindako meza-ospakizun baten bidez.

Baina elizbarrutiari atxikirik euskararen alde egin duen lana luzarokoa, isila eta anonimo samarra izan da, eta, are garrantzikoago dena, eragin handikoa. Liturgia eta Gotzaindegiko idatzi ofizialak euskaratzeari loturik egon da batez ere isileko jardun hori.

Hirurogeiko hamarkadan Bilboko Gotzaindegiak liturgia euskaratzeko talde bat eratu zuen. Lino Akesolo buru zela, Karmelo eta Mikel Zarate ere talde horretako kide izan ziren. Horren lehen emaitza *Mezaren egunerokoa* (1970) izan zen, Bizkaiko elizetan erabiltzeko.

Handik gerotxoago euskal elizbarruti diferenteetako itzultzaile-taldeak elkarrekin biltzen eta lan elkartua egiten hasi ziren. Horren ondorioz, euskal liturgiako testuak eliztarren euskalki literarioan idatziak egon arren, testu bakarraren funtsa izan dute: bertso bakarretik euskalkietara egokituak izan dira.

Karmelori harrotasunik handiena eman zioten liturgia lanak *Meza Liburua* eta *Irakurgaiak* liburuki apain ederrak izan dira. *Meza liburua*, edo *Altarako liburua* 1984an argitaratu zuten euskal elizbarruti guztiek batera. Bizkaierazko testua, talde-lanean egokitua izanik ere, Karmelok bere idaz-makinaz jo ei zuen hitzez hitz, bere galbahetik igarota da. Beste horrenbeste *Irakurgaiak* izeneko ere, 1988an elizbarruti guztien artean aterea.

## EUSKARAREN TESTAMENTUA

2003an argitaratu zuen Karmelok *Euskerea nire bizitzan* izeneko liburua, bere bizitzan zehar idatzitako lan laburrez osatua, baina euskararekin izan duen harremana (eta osterantzekoa ere) jasotzen duen ehun bat orrialdetako saio dialogatu luze bat aurrean duela.

Egia esatera, Karmelok, gizon zehatz eta ordenatu bezala, karpetetan txukun gordetik zituen askoz lehenagorik bere idazlan labur guztiak, eta urte batzuk lehenago nire esku utzi zituen, astia geneukanean transkribatu, sailkatu eta argitara genitzan. Denboratxoa igarota zen, baina azkenean Igone Etxebarria lankideak hartu zuen ardura hori, eta Ander Manterolaren eskariz idatzi zuen bilduma horrek duen sarrera biografiko luzea. Tokatzen zen moduan, aspaldiko eta oraintsuagoko idazlan guztiak gaurko grafiara ekarri ziren eta arloka sailkatu. Emaitza ederra izan zen, eta hor gelditu da Etxenagusiaren azken liburu hori elizgizon, irakasle, idazle eta euskaltzale handiaren oinordeko.

Gotzaintza ardurak eta Elizbarrutian ia gaztetarik eduki zituen guztiak behin-betiko alderatu eta Berrizko Mertzede monjen komentura joateko asmoa hartu zuenean, euskara, literatura eta herri literatura gaietan ikertzen eta idazten ekiteko gogoia eta borondatea agertu zuen. Baina tamalez eritasun txar batek jo eta uste-uste barik eroan zuen 2008ko azaroaren 6an.

Goain bego.

Donostian, 2009/III/27an

Adolfo Arejita